



BARREN

TOKIKOM



Handia egin dute

Gorane Ayesta, errugbi jokalaria



TXA PELA

HITZALDIA
2021/05/22a larunbata

Txapela XIX. mendean.

Hizlaria: Mikel Alberdi Sagardia historialaria
Ordua: 12:00etatik 13:00etara.

Lekua: Makina Erremintaren Museoa. Leku kopuru mugatua. Izena eman behar da 2021-05-21a baino lehen. Sarrera: 4 €. Euskaraz.

Antolatzailea



www.museoa.eus
museoa@museoa.eus
T. 943 748 456

Kolaboratzaileak



ATE IREKIAK

Maiatzak 27

9:00 - 19:00

Erdi maila:

- MENDOKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- AROTZERIA ETA AITZARIGINTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA *
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- PLATAFORMA ANITZIKO APLIKAZIOEN GARAPENA **OPEN**

Eskaintza partziala:

- DISEÑUA ETA AITZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiah euskarara hartzen

- ELKARRITZA: ziklo hauetan modulu batzuk legelezei egoteko eskatu.

www.izarraitz.eus

CFP IZARRAITZ LANBIDE HIZKETA LHI
Alberni auzoa z/g 20720 Adicolla (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 - durgoa@izarraitz.eus



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztionentzat!



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Psikologia eta merkatua

teorizatzen zituzten mediku eta psikologoak, arrazaren hobekuntzarako bideak defendatzen zituztenak. Tortura teknika asko psikologoen asmatuak dira.

Edozein zientzia jar daiteke humanitatearen alde edo merkatu eta botereen alde; eta noski, merkatuak erabakitzen duenez zein ikerketa finantzatu, zaila dugu bereizten oraintxe. Etika izango litzateke bereiziko lituzkeena; osasunari lehentasun osoa emanaz norbere aberasteko eta fama izateko aukeraren gainetik.

Oraingoan hazkuntzarako eta osasunerako bidea nola bereizi jakiteko

klabea eman nahi nizueke; eroso eta patxaratsu utzi nahi zaituzten horietatik aldendu piska bat eta zeure jarreretatik pentsarazten dituztenez gehiago inguratu. Benetako zorientasuna sentitzeko, bizirik sentitu behar gara, erronkak izan behar ditugu, ispiluaren aurrean zintzotasunez jartzeko gai izan behar gara. Bestelako guztia azalekoa da eta kanpoan geratzen da, barruko hutsunea sakonduz.

Hemen noski, zerbait argitu beharrean nago, emakumeontzat, sakrifizioa erlijio dugunontzat erosotasuna etengabeko emanean dago; ausartu gaitezen momento batez geure gogoa nabaritzen, arreta jarri desioan, eta baimendu plazerra.

Neure ogibidearekiko mesfidantza ohikoa da oraindik, eta kasu askotan ulertzekoa dela iruditzen zait, historikoki erabilia izan baita botereen interesen arabera. Honela, gai berdinaren inguruan ikerketa eta teoria kontrajarriak irakur genitzake psikologo formatuez sinatuak. Hitlerrek bazituen bere ideiak defendatu eta

“Benetako zorientasuna sentitzeko, bizirik sentitu behar gara, erronkak izan behar ditugu, ispiluaren aurrean zintzotasunez jartzeko gai izan behar gara”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855


BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ESKERRIK ASKO IBAI ERTZEKO BARANDATAN BURDIN SAREAK JARTZEAGATIK

Denok dakigu Deba ibaira plastikoak eta bestelako hondakinak erortzen direla, haizeak edo euriak eramaten baititu gehienbat: tabako eta gozoki bilgarriak, plastikoak, paperak, poteak, latak, zigarro-muturrak, plastikozko poltsak... Penagarria da. Arazo honi aurre egiteko herriko ikasleek proposatuta eta Elgoibarko Udalaren laguntzarekin ibai ertzeko barandatan (Giza Eskubideen Parkean) burdin sareak ipini dituzte. Berez ez genuke ezer lurrera bota behar, baina panorama ikusita, kaleko plastiko eta zikinkeriak ibaira ez erortzeko sistema hau bikaina dela iruditzen zait. Bejondeizuela!

Dena den, guztiok jakitun gara ibaien zikinkeria arrazoi bakarra ez dela kaleetako zikinkeria. Erreketatik gertu dauden industrialdeetako isuriek eta obretan sortzen diren hondakinek ere maiz Deba ibaian amaitzen dute. Herrian burdin sareak jarri bai, baina industrialdeetan eta leku ezkutuagoetan bestelako ekintza estrategikoak martxan jartzea ere ez legoke gaizki.

Nire eskerrik beroena Deba ibaiaren eta bertako inguruneen egoera hobetzen laguntzeko guztiok hartutako konpromisoarengatik. Naturak ere eskertuko digu.

A. I. Z.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar ditugu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datarren eskutitzik argitaratuko.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Bernardo Ezenarro kaleko parke hau lagata dago: “Bernardo Ezenarro kaleko parke hau ahaztuta dauka Udalak, eta urteetan ez dio kasurik egin. Lagata dago, eta gainera iltze batzuk oso arriskutsu daude. Pista Beltzean lorontzi batzuk jarri zituzten hura apaintzeko eta parke honetan ere antzerako zerbeit egin daitekeela iruditzen zait”. Hirigintza Saitetik esan dutenez lursail hori ez da Udalarena; Eusko Trenbide Sarearena da eta Udalak ez dauka, oraingoz behintzat, hor ezer egiteko baimenik.



Zergatik daude parrokiako kanpaiak bi minutu aurreratuta?: “Garai batean San Bartolome parrokiako kanpaiak atzeratuta egon ziren, eta azkenaldian ordua baino bi minutu aurretik jotzen dute”. San Bartolome parrokiako arduradunekin jarri gara harremanetan eta ondorengo erantzuna eman digute: “Dorrearen erlojua da pare bat minutu aurreratuta dagoena, eta, ondorioz, kanpaiak aurrerapen horrekin entzuten dira. Erlojua satellite bidez kontrolatutako teknologia digitalekoa da, eta ez dakigu zergatik desfasatzen den. Lehen, aspaldi, atzeratu egin zen, eta orain aurreratu egin da. Parrokian laguntzen duten pertsonak ezin dute erlojuaren ekipoa manipulatu; beraz, ahal denean, teknikariak etortzeko eskatuko dugu. Kantabriako teknikariek egiten dituzte erlojuaren mantentze lanak, eta ahal dugun bezain pronto eskatuko diegu konpontzera etortzeko”. Parrokiako arduradunek telefonoz hitz egin dute teknikariek eta doikuntza txiki batzuk egin dituzte aste honetan. Orain kanpaiak puntuan jotzen du baina erlojuaren desfaseak zergatik gertatzen diren ikustera etorriko dira teknikariak ahal bezain pronto.



Artekaleko eskailera mekanikoak kendu eta igogailua jartzeko asmorik ba al dauka Udalak?: “Artekaleko eskailera mekanikoak askotan hondatzen dira, eta sarri egoten dira geldirik. Gainera, igotzeko ondo daude, baina jaisteko ez dute balio. Ume aulkiarekin San Rokeetik Aita Agirrera joateko sekulako buelta eman behar izaten dugu anbulatoriotik edo San Inazio kaletik, eta ez da batere eroso. Adinekoentzat eta gurgildun aulkian dabilzentzat ere askoz erabilgarriagoa da igogailua”. Hirigintza Saitetik jakinarazi dute une honetan herrian badaudela irisgarritasun premia handiagoa duten lekuak, eta horiei emango dietela lehentasuna.

Arnaldo Otegi jarraituko du EH Bilduren koordinatzaile nagusia izaten

Euskal Herria Bilduren II. Kongresuko hautagaitzak bozkatu zituzten bilkideek maiztaren ótik 8ra bitartean, eta hamar bilkideetik bederatzik babestu zuten zuzendaritzaren proposamena. EH Bilduren Mahai Politikoa Arnaldo Otegi Mondragon (Elgoibar, 1958) proposatu zuen zerrendaburu gisa, eta aurten ez da beste hautagaitzarik aurkeztu. Hegoaldeko Zuzendaritzarako zerrenda eta Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako herrialdeko arduradun politikoak bozkatu zituzten Bilduren kongresuan. Otegi gidatutako hautagaitzak militanteen babes zabala jaso zuen; %88,49k eman zuten baiezeko botoa, eta %6,65ek ezezkoa. %4,86k bozkatu zuten zuri. Herri Batasunaren, Euskal Herritarrok-en eta Batasunaren Mahai Nazionaleko kide izana da Otegi, eta legebiltzarkidea 1995etik 2005era. 2009an atxilotu zuten *Bateragune auzian*, eta 2016ko martxoan irten zen espetxetik, zigorra osorik beteta. 2017tik da EH Bilduko koordinatzaile nagusia. Hain justu, EH Bildu koalizioak 10 urte egingo ditu aurten.



Langabeziak behera egin du apirilean

Debabarrenako herri guztietan egin du behera langabeziak apirilean. Apirilaren amaieran 518 langabe zeuden Elgoibarren, martxoan baino 21 gutxiago. Mendaron, berriz, 82 langabe erregistratuta zeuden enplegu bulegoetan, aurreko hilean baino 11 gutxiago. Hona hemen Debabarrenako apirileko datuak, herri herri: Eibar 1.621 (%12,72), Elgoibar 518 (%9,37), Mendaro 82 (%8,29), Deba 185 (%6,94), Mutriku 204 (%7,67), Soraluze 251 (%13,39). Debabarrena osoan 2.861 (%10,81) langabe zeuden apirilean.

Espetxe politika salatu eta "elkarbizitzarako eta bakerako bidea" hartzeko eskatu zuten zapatuan mendi tontorretatik, 'Izan Bidea' egitasmoaren barruan

Milaka lagunek parte hartu zuten zapatuan Sarek antolatutako ekimenean. Elgoibarren eta Mendaron ere asko izan ziren mendi gainetara igo eta espetxe politikaren "bidegabea" salatu zuten herritarrak. Euskal Preso eta iheslariak etxeratzeko eskatu zuten Morkaikora, Garaluzera, Gaintxipixara eta Otarrera igo ziren elgoibartar eta mendarorrek. Elgoibartarrak 9:30ean abiatu ziren Kalegoen Plazatik eta Aias-tian elkartu ziren autoz igotakoekin. Txistulariak lagun hartuta Morkaikoko tontorreraino abiatu ziren elkarrekin. Han, Irati Agirreazaldegik egindako bertsoak kantatu zituzten, Habanera doinuan, eta 650 tontor ekimeneko testua irakurri zuten ondoren, argazkia atera aurretik. Mendarorrek ere 9:30ean abiatu ziren Herriko Enparantzatik eta hiru taldetan banatuta hartu zuten tontorretarako bidea. Datozen hilabeteetarako ere dozenaka ekintza antolatuko dituztela aurreratu zuten Saretik.



Elgoibar




Mendaro

Burdin sarea jarri dute ibai ertzeko barandetan, plastikoa ibaira eror ez dadin



Giza Eskubideen Parkean dauden ibai ertzeko barandatan burdin sareak ipini ditu Elgoibarko Udalak, Deba ibaira plastikoa eta bestelako hondakinak eror ez daitezzen. Lanok 3.314 euroko aurrekontua (BEZik gabe) izan dute. Neurriak Haurren Kontseiluak Eskolako Agenda 21en barruan egindako eskaera bati erantzuten dio. Iaz, biralak egin ziren Ozeano Barea sortutako plastikozko uhartearen irudiak, eta, horren harira, kontzientziazio-kanpainak egin dituzte eta hainbat neurri hartu dituzte mundu osoan, plastikoa erabilerara murrizteko, baita Elgoibarren ere. Herri Eskolako 5. ikasturteko ikasleek (aurten seigarren mailan daude) kontzeptu hori erabili zuten 2020an hainbat gai jorratzeko. Sigmako industrialdea garbitu zuten udal arduradunekin batu ondoren, eta, era berean, plastikoa eta hondakinak ibaira ez erortzeko elementuak jartzeko eskatu zuten. Giza Eskubideen parkean jarri dutenaz gain, maiatzaren amaieran Maalako parkean dauden barandetan ere jarriko dituzte burdin sareak. Lan horiek 5.808 euroko aurrekontua izango dute, BEZ kontuan hartu gabe.



Bazter babesak, baserri bideetan

Herritarren segurtasuna bermatzeko bazter-babesak jarri ditu Elgoibarko Udalak baserri bideetan, eta guztira, 2 kilometro eta 100 metroko ibilbidea babestu dute. Elgoibarko Udalak jakitera eman duenez, 2019tik 2021 bitartean 100.000 euroko inbertsioa egin dute hainbat baserri bideetan bazter-babesak ipintzeko. Bazter babes horien funtzioa da errepidea eta berdegune edo sakanak banatzea, eta, bertatik igarotzen diren oinezko zein ibilgailuen segurtasuna bermatzea.


LGTBI+ fobiaren aurkako egunarekin bat egingo du Elgoibarko Udalak

1990eko maiatzaren 17an kendu zuen Osasunerako Mundu Erakundeak homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik, eta horregatik, maiatzaren 17a izendatu zuten LGTBI+ fobiaren aurkako egun. Kolektibo horrek pairatzen duen diskriminazioa salatzen da, eta Elgoibarko Udalak ere bat egingo du ekimenarekin. Horren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte: *Esnatu naiz* kabareta (bihar, 19:00etan Kultur Etxeko sotoan), *Sexu aniztasuna zahartzaroan* hausnarketa saioa (maiatzaren 24an, 18:00etan, Kultur Etxean), *Hankaz gora* ipuin kontalaria, (maiatzaren 19an, 17:00etan, Ludotekan). Gaztelekuan ere landuko dute gaia nerabeekin, eta *La vida de Adele* filma ikusiko dute maiatzaren 16an.



Liztor beltzaren kontrako kanpaina abiatu dute Foru Aldundiak eta hainbat udalek, tartean Mendarokoak

Liztor beltzaren (*vespa velutina*) kontrako kanpaina abiatu dute Foru Aldundiko Fauna Basatiaren eta Abeltzaintza Departamentuak eta hainbat udalek lankidetzan, tartean, Mendarokoak. Liztor beltzaren erreginek hibernatzen pasatu dute negua eta udaberriarekin batera, neguko ezkutalekueetatik irten eta kabi berriak egiteari ekin diete. Horregatik, haien habiak desaktibatze kanpaina hasi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, erlezaintzan, nekazaritzan eta ingurumenean sortzen dituen kalteak murrizteko. Suhiltzaileek, basozainek, Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko ki-deek eta Landa Garapen Elkarteko, udaletako eta Aldundiko langileek osatzen dute lantaldea. Helburua, berriz, zera da: liztor beltzak erlezaintzan, nekazaritzan eta ingurumenean sortzen dituen kalteak murriztea, bai eta pertsoneri egiten dizkieten ziztadak saihestea ere. Horretarako, herritarrei laguntza eskatu diete, eta liztor beltzaren habi bat ikusiz gero, Udalera deitzeko eskatu dute, protokoloa martxan jarri dezaten. Liztor beltzak buru beltza eta aurpegi laranja ditu; bertako liztorrengandik bereizten duena hankak dira, gorputzaren aldeko zatia beltza eta puntak horiak dituztelako. Lehen habiak toki babestuetan egin ohi dituzte: teilatu-hegal azpietan, ganbaretako sabaietan, balkoietakoa sabaietan eta pertsianen kaxetan, esaterako. Uztaila amaiera bitarte ikusten dira eta forma esferikoa dute, ia borobila. Adituek ohartarazi dutenez, oso garrantzitsua da lehen habia hauek detektatzea eta desaktibatzea, liztorrak ugaritzea eta zabaltea eragotzi daitekeelako horrela. Lehen habia suntsitu ezean handiagoak egiten



dituzte, eta uda edo udazken parterako habia bakoitzean 3.000 liztor inguru izatera iritsi daitezke. Gainera, lehen habiak kentzea errazagoa izaten da langileentzat, txikiak direlako, eta baliabide gutxiago eskatzen dituztelako: spraydun biozidarekin eta salabar-doaren laguntzaz nahikoa izaten dute askotan.

Kalteak

Liztor beltzak, ondutako frutak hozkatzen ditu, erleak eta bestelako xomorru ugari iri erasotzen die, bertakoa den liztorrekin lehiatzen da eta polinizatzaileak diren espezieen jokabidea eraldatzen du. Horrenbestez, ondorioak oso nabarmenak dira erlezaintzan eta nekazaritzan, kalteak sortzeaz gain, ingurumenean eragiten dutelako.

Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu du, Elgoibarko ingurumenaren kalitatea eta itxura hobetzeko, eta landareei garrantzia emanez, herrigune atsegina eta ederragoa izateko. Interesatuek ekainaren 2tik 18ra eman beharko dute izena Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 7:30etik 15:30era. Eskualdeko irabazleak 250 euroko bonoa jasoko du saritzat, eta herri mailan 200 euroko bi erosketa bono banatuko dituzte. Bestalde, ekainaren 2an, Furgobaratzen furgoneta iritsiko da Elgoibarrera, eta 10:00etatik 13:00etara lorak banatuko ditu, doan. Etxebizitza bakoitzeko lora bat banatuko dute. Horretarako, etxean jasotako inprimakia beteta eraman beharko da.

Bisita gidatuak Lizagar sagartokira

Jubilatuena Biltokiak Lizagar sagartokira bisita gidatuak antolatu ditu. Maiatzaren 22an izango da lehen txanda, eta bigarrena, hilaren 23an. Hamaiketako egindako dute, eta kupel tokia eta sagastia bisitatuko dituzte. 11:45ean hartuko dute autobusa Txarri-dunako errotondan, eta 15:00etarako itzuliko dira. 16 lagunentzako lekua dago. Interesatuek Jubilatuen Biltokian eman behar dute izena, astelehenetan 11:00etatik 12:00etara.

Merkataritza txikiari laguntzeko bono kanpaina hasiko du Elgoibarko Udalak



Herriko merkataritza suspertzeko laugarren bono kanpaina jarriko du martxan Elgoibarko Udalak. 30.000 euro inbertituko ditu Udalak, eta 3.000 merkataritza-bono aterako dituzte. Horiei esker, herritarrek %30eko deskontua eskuratu ahal izango dute egindako erosketetan. Bonoak establezimenduetan erosi behar dira erosketa egiterako unean bertan, eta egindako gastuak, gutxienez, 5 eurokoak, eta gehienez, 60 eurokoak izan daitezke. Bonoak 2021eko uztailaren 30era arte trukatu ahal izango dira atxikitako dendetan. Kanpainan parte hartu nahi duten establezimenduek www.elgoibar.eus atarian eman behar dute izena, maiatzaren 22rako. Elgoibarko Udalak 200.000 euro inbertitu zituen iaz kontsumo bonoen kanpainan, eta epe laburrean ostalaritzari laguntzeko dirulaguntza zuzenen deialdia zabalduko duela iragarri du.

Ekintzaileentzako formazio saioak eta dirulaguntzak eskainiko ditu Debegesak, eskualdeko ekintzailetzaren hilabetean

Ekintzailetzaren hilabetea Debabarrenean ekimena antolatu du Debegesa Garapen Agentziak maiatzerako, eta horren barruan doako hainbat formazio saio eskainiko ditu. Doako eskaintza da, eta Internet bidez eskainiko dute formazioa gai bakoitzeko adituek. Guztiek ordu bete irango dute, 09:00etatik 10:00ak arte. Gaur, *Nola saldu zure negozio ideia* saioa emango du Ione Feijook. Nazioarteko merkatuetan markak sortzeko eta finkatzeko aholkularia Bostnanen Feijoo. Maiatzaren 21ean, berriz, *Nola finantzatu zure negozioa* saioa emango du Naiara Lopezek, Elkargi SGRko analista finantzarioak. Azkenik, maiatzaren 28an, *Forma juridikoa eta betebeharrak fiskalak* hitzaldia emango du Juan Bidegainek, Torrealday Aholkularitzako Aholkulari Fiskal eta kontablea denak.

Era berean, Debegesa Garapen Agentziak kudeatuko ditu Debabarrenean ekintzaileei zuzendutako dirulaguntzak, eta eskabideak aurkezteko azken eguna gaur izango da. Argibide gehiagorako 943 820 110 telefonora deitu edota ekintzaile@debegesa.eus posta elektronikora idatzi behar da.

‘Emakumea eta kirola’ tertulia gaur, gaztetxean

Herriko lau kirolari handi batuko ditu Narrrtsik Elgoibarko Talde Feministak gaur arratsaldean, *Neska gazteak tertulian: emakumea eta kirola* izenburuko solasaldian: Gorane Ayesta Maidagan errugbi jokalaria, Sara Arriola Rementeria futbol jokalaria, Nora Pedrosa Alberdi surflaria eta Nerea Sasian Uranga atleta. Sutegixa gaztetxian izango da, 18:30ean, eta solasaldia bukatu ostean, 20:00etan, Elgoibarko neska gazteen mendi taldea sortzeko batzar irekia egingo dute. Interesdunek izena eman behar dute honako loturan sartuta: <https://forms.gle/zJ5Cz14BfPuafwNN7>.

Mendaroko merkataritza suspertzeko bono kanpaina gaur bukatuko da

Merkataritza sustatzeko udaberriko bono-kanpaina gaur amaituko da, Mendaron. Guztira 13 saltoki atxiki dira aurtengo kanpaina honetara: Galle-Tiak, Farmazia, Leire, M^aAxun, Perosanz, Puxika, Lutximak, Itxasertz, Anton, Coviran, Art Fruit, SGERons eta Morroskillo. Komertzio horietan 15 eurotik gorako erosketak egiten dituzten bezeroek zozketa tiket bat jasoko dute, eta guztien artean 9 sari banatuko dituzte. Lehen saria jasotzen duenak Ederki-Lutximak-en bi zerbitzuetan 50 euroko deskontua eta komertzio parte-hartzaile diren 13 dendetan erositako 50 euroko produktuak jasoko ditu. Gainerako 8 sariak kanpainan parte-hartu duten dendetan gastatzeko 50 euroko deskontu bonoak izango dira eta uztailaren 31a baino lehen erabili beharko dira. Mendaroko Udalak 3.000 euro bideratu ditu kanpaina honetara. Udaberriko kanpainarekin batera, maiatzaren 15ean Merkataritzaren Eguna ospatuko dute Mendaron, eta horren barruan bigarren eskuko azoka egingo dute eta herriko zenbait dendek postuak jarriko dituzte pilotalekuan.

▶ GORANE AYESTA

ERRUGBI JOKALARIA

Biokimika ikasketak egin eta Gizarte Hezkuntza ikasteari ekin zion ondoren Gorane Ayestak (Elgoibar, 1995), eta sasoi berezuan deitu zuen Bera Bera emakumeen errugbi taldera ere, errugbia probatu nahiko lukeela esanez. "Parez pare" zabaldu zioten klubean atea, eta hain sentiarazi zuten etxeko, hain talde bateko kide, geroztik han dabilela, "ezin gusturago". Aurten, Euskal Liga irabazi dute, eta asteburuan Ohorezko B Mailara igotzeko fasea jokatu dute Donostian. Ez dute igotzerik lortu, baina balorazio positiboa egin du Klubak. "Izugarri polita izan da", aitortu du berak.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Euskal Liga irabazi duzue eta asteburuan Ohorezko B Mailara igotzeko fasea jokatu duzue. 5 urte bete berri dituen taldearentzako ez dira lorpen makalak! Zorionak!

Eskerrik asko. Faktore askok lagundu dute iritsi garen lekura iristen, baina bereziki batek: gogotik egin dugula lan. Gure onena eman dugu denok eta lortu dugu Euskal Liga irabaztea. Hego Euskal Herrikoak eta Logroñoko talde bat lehiatu gara ligan eta hori irabazi izanak eman digu aukera Ohorezko B Mailara igotzeko fasea jokatzeko. Asteburuan izan da hori eta zortzi talde lehiatu gara. Bakarrak zuen igotzeko aukera, baina, eta Valentziarrak igo dira. Guk, klubean, oso balorazio positiboa egin dugu gure lanaz, hala ere. Ikusi dugu ikasteko eta hobetzeko asko daukagula, baina hiru partidatik bat irabazi dugu, eta besteetan ere ez diegu erraza jarri aurkariei irabazteko. Ez genuen pentsatu ere egiten Euskal Liga irabaztea, ez eta igoera fasean izan ditugun aurkari gogorrek estu hartzeko moduan izango ginenik ere, baina lortu dugu. Eta horrez gain, asteburuko antolatze izan dugun laguntza ere izugarria izan da. Boluntario asko gerturatu zaizkigu laguntzera



"Askotariko gorputzek dute lekua errugbian"

eta klubeko beste taldeetako jokalariek ere bai. Hunkigarria izan da. Biharamunarekin gaude oraindik asko.

♦ **Hirugarren denboraldia duzu Bera Beran. Zer harreman izan duzu aurrez kirolarekin?**

Eskola kirolean ibili nintzen umetan, eta eskubaloirako eman nuen izena gero, Sanlon. Euskal dantzetan ere umetatik ibili izan naiz. 14-15 urterekin, baina, Batxilergora iristean, eskubaloia laga nuen; dantzan jarraitu nuen, hala ere.

♦ **Noiz hasi zinen errugbian?**

Donostiara Gizarte Hezkuntza ikasitera joan nintzenez. Kirola egiten hasi

nahi nuen, baina ez nekien zer. Auto-istriputa ere izan nuen, eta ia urtebete pasatu zitzaidan ezer egin gabe, baina aspaldian nenbilen ingurukoei errugbia probatu nahi nuela esaten, eta egun batean han etorri zitzaidan pisukidea egunkarian irakurri zuen kontu batekin. Bera Bera taldean taldekide bila ari zirela esan zidan eta deitu nuen, birritan pentsatu gabe. Lotsatuta deitu nuen, baina parez pare zabaldu zidaten atea, babestu ninduten, eta lehenengo entrenamendutik bertatik esan nien kontatzeko nirekin, jarraituko nuela. Aurrez ibili gabea nintzen sekula errugbian.

♦ **Nahi zenuen errugbian jokatu, baina bazen zerbaít lotzen zintuena. Zer?**

Ez neukan erreferente emakumezkorik. Errugbia maskulinizatutako kirola da. Badaude jendartearen pertzepzioaren arabera, kirol batzuk besteak baino maskulinoagoak direnak, indar fisiko handiagoa erabili behar delako edota kontaktu gehiago dagoelako. Sarri esan didate errugbia kirol biolentoa dela, baina niri ez zait hala denik iruditzen, biolentzia edo indarkeria oso bestela ulertzen ditudalako nik. Errugbian lantzen diren balioak beste batzuk dira. Errespetua, izan norberarekikoa, taldekideekikoa nahiz aurkariarekikoa, beste ezeren gaintetik dago errugbian. Baina bai, egia da emakumeoi ukatu izan zaizkigun gauzeekin lotzen dela errugbia: indarrez jokatzeari, tentsioz jokatzeari... Estereotipoak hausteko daude, baina. Gurean ez du errugbiak beste herrialde batzuetan besteko tradizioirik izan, baina hemen ere ari da indarra hartzen emakumeen errugbia eta ari da ikusgarritasuna irabazten. Baina egia da oraindik errugbia aipatzen dugunean Zeelanda Berriko All Blacks-en hakak-ekin [Maorien kulturatik datorren gerrako kantua, Zeelanda Berriko selekzioak nazioarteko partidetan ereserkien ondorekiko eta hasierako sakea baino lehen aurkariaren kontrako borrokarako dei moduan antzeztzen duena] lotzen dutela askok, edo bestela Samoako edota Hego Ameriketako errugbi jokalarik gizonetakoekin, gizon indartsuekin.

♦ **Talde gaztea da zuena. Erronka nagusia zein izan da?**

Duela bost urte sortu zuten Bera Berako emakumeen errugbi taldea, eta duela lau hasi ziren lehiatzen. Kirol ezzaguna da oraindik errugbia, eta zer esanik ez emakumeentzat. Horregatik, ez da erraza izaten emakumeen errugbi taldea osatzea, eta are gutxiago egonkortzea. Hamabost jokalarik behar dira taldea osatzeko gutxienez, eta jakina, ordezkokoak ere behar izaten dira. Horregatik beti ari gara gu jendeari probatzera etortzeko esaten.

♦ **Erreferenteen garrantzia aipatu duzu. Falta izan dituzulako?**

Izan nituen gazteagotan lagunak

“Eginahalak egingo ditugu aurtengoa errepikatzen, izugarri polita izan delako”

errugbian ibilitakoak, mutilak denak, eta haiek izan dira errugbia probatzeko gogoak piztu didatenak, baina sekula ez nuen irudikatuko nire burua errugbian jokatzen, nire gorpuzkerarekin ez nuelako uste lekurik izango nuenik. Erreferenteak ezagutzeko aukerak eskura jarri behar ditugu. Bera Beran sartu nintzenean konturatu nintzen bagenuela hemen ere emakume erreferenteak, bageneukala non begiratu, baina ordura arte ez nekien. Hor dauzkagu Baionako neskek edota Espainiako selekziokoak [Las leonas], adibidez.

♦ **Kontzientzia feminista baduzu zuk. Errugbian hasteko gogo horren atzean bazen estereotipoak hautsi nahi bat?**

Nik uste dut baietz, baina ez modu kontzientean. Beti gustatu izan zait nire gorpuztea proban jartzea eta beste egoera batzuetan ikustea, eta errugbiak emakumeoi ezartzen dizkiguten muga zurrun horiek apurtzeko balio izan dit,

ahalduntzeko. Garbi ikusten da errugbian askotariko gorpuztekin dutela lekua. Behar ditugu arinagoak, baloia hartu eta ihes egiteko, behar ditugu sendagoak, pisutsuagoak... denok daukagu lekua. Baina zuk diozun kontzientzia feminista hori oso presente dago. Gurea errugbi taldea izateaz gain, borroka taldea ere bada.

♦ **Zenbat eskaintzen diozu errugbiari?**

Elgoibarren bizi naiz eta astearte eta ostegunetan joaten naiz entrenatzera Donostiara, baina egon gara asteazkenetan joaten ere. Eta horrez gain gimnasia ere joaten naiz. Badaude, hala ere, gehiago ematen duten taldekideak. Klubeko beste taldeetan ere aritzen dira batzuek, edota gazteagoak entrenatzen.

♦ **Mexikon ere ibili zinen aldi batez ikasten, eta han ere topatu zenuen errugbian non jokatu, ezta?**

2020ko urtariletik irailera izan nintzen Mexikon Erasmusekin eta unibertsitateko taldean jardun nintzen han entrenatzen. Futbol amerikarrek zelaia ondoan entrenatzen ginen, zaindu gabeko zelaia lehor batean. Adierazgarria zen.

♦ **Ba al du han errugbiak tradizioirik?**

Futbol amerikarra da han izarra. Badaude taldeak eta selekzioa ere badute, baina ezberdina da. Han, zazpi jokalarikoak dira taldeak. Jokoa erabat ezberdina



Gorane Ayesta baloiarekin, taldekideek altxatuta.



Bera Bera taldekoak asteburuan Donostian.

da zazpirekin jokatu edo hamabostekin. Zazpirekin askoz joko azkarragoa da. Denboraldia amaituta, zazpikorako entrenatzen hasiko gara gu ere.

◆ Zein postutan jokatzeko duzu? Zer ezaugarri daukazula esango zenuke?

Aurrelaria naiz, bigarren ilarakoa. Melean barru-barruan egoten naiz eta eta alboko satea ateratzen dutenean, taldekideek altxatzen dutena naiz, harroinak jaurtitako baloia hartzen duena. Aurrelariok aurkarien taldeko gogorrenen kontra egin behar dugu eta ez naiz ni gorputzez gauza handia, baina badut konfiantza neure buruarengana. Partida guztiak ez dira berdinak, jakina, baina bai, aurrera egitekoa naiz normalean. Eskubaloian ibilitakoa ere banaiz eta eskuetan ere badaukat indar hori. Dena den, ni taldera iritsi nintzenean aurrelaria behar zuten eta hor hasi nintzen, baina beharra dagoen lekura moldatzen gara gu taldean.

◆ Zer esango zenieke zuk eman duzun pausoa eman ezinda dabilzane?

Probatzeko. Tentatuta baldin badaude, ahazteko kontrako mezu horiek guztiak eta probatzeko; ez izateko beldurrik. Beldurrik ezin digu eragotzi beste esperientzia batzuk bizitzea, eta are gutxiago besteen esanek. Nik ere entzun nituen hasieran txikia nintzela, jango nindutela errugbian... Nahi izanez gero, baina, ez dago ezinik. Indarra hartzen da gimnasia joanda ere. Lantzen diren balioak eta errugbiaren bueltan sortzen den giroa kontuan hartuta esan diezazueket sekulako kirola dela hau. Bera-Bera da nire bigarren familia. Errugbian bakarka ez gara ezer; taldeko gainerrako emakumeekin batera egiten denak

du zentzua hemen, eta jakitea, hartzen duzun erabakia hartzen duzula, beti izango duzula norbait ondoan, izugarria da. Kontaktu handiko kirola da errugbia, baina partida amaitu ondorenean bi taldeetako taldekide guztiak elkartzen gara hirugarren denboran, eta han sortzen dena ezin da hitzez adierazi. Diferentzia guztiak albora laga eta batzen gaituen hortan zentratzen gara. Bada beste kontu bat ere sarritan aipatzen digutena eta barneratuta daukaguna: errespetua bada, partida irabazitaz edo galdutaz izan, dena ematea ere; aurkariari errespetua zor zaio beti.

◆ Zer daukazue orain begiz jota?

Hankak lurrean ditugula ari gara lanean. Ez dugu gora igotzerik lortu eta bigarren mailan jokatu dugu datorren urtean ere, baina eginahalak egingo ditugu aurtengoa errepikatzeko, izugarri polita izan delako bizi izan dugun hau. Duela bost urte taldea sortzeko prozesuan izan zen taldekide batek esan dit asteburuan sekula ez zuela pentsatuko iritsi garen lekura iritsiko ginenik.

◆ Narrutsiek antolatutako duen tertulian parte hartuko duzu gaur. Zer esan nahiko zenuke?

Erreferenteak behar ditugula emakumeen kirolari ikusgarritasuna emateko, ikusten ez dena ez delako baloratzen. Niri aurkeztu izan bazizkidaten erreferenteak

“Erreferenteak behar ditugu emakumeen kirolari ikusgarritasuna emateko”

rentek umetan beharbada aurretik hasiko nintzatekeen errugbian jokatzeko ere.

◆ Eskola kirolean ibilitakoa zara. Nagusiki hiru kirol sustatzen dira: futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Zer diozu?

Ez zait eredu egokia iruditzen. Eskola kirolaren helburua kirolerako aukera ezberdinak aurkeztea izan behar da, umeak ariketa fisikoa egitera bultzatzeko. Eta zenbat eta aukera gehiago aurkeztu, orduan eta ume gehiagok topatuko dute beren lekua. Horrez gain, inguruan daukagun kirolariak, taldeak edota klubak ezagutzeko aukera ere eman behar zaie, nora joan badutela jakin dezaten.

◆ Dena ez da kirola zure bizitzan. ‘Klittol!’ feminismoaren inguruko aldizkari digitalarekin ere kolaboratzen duzu.

Aspaldi ez, baina bai, ibilitakoa naiz. Ikuspuntu feministarekin interpretatu eta lantzen diren albisteak jorritzen dituzte Klittol-n, askotan tabu direnak. Kolaborazioak erabat libreak dira. Geuk erabakitzen dugu zein gai landu, zein genero edo adierazpenen bidez edota zein baliabide erabiliz. Niri idaztea beti gustatu izan zait, eta bereziki poesia idaztea, eta horretan jardun naiz Klittol-n. Hor kolaboratzeak balio izan dit nik sentitzen ditudan gauzak beste jende batek ere sentitzen dituela ikusteko; horrelako aukerek balio dute esperientziak kolektibizatzen. Ume-umetatik erakusten digute emakumeoi trabarik ez egiten, “behar ez den” lekuetan ez sartzen, gai batzuei buruzko iritziak isiltzen eta halakoek balio dute ahalduzko eta boteretzeko. Testu asko neuzkan nik idatzita, baina beti ematen zidan lotsa puntu bat konpartitzeak; oso da emakumeona gure burua gutxieste hori.



1945

Aste honetako erretratu zaharra Jose Mari Azpiazu Unamunzagaren argazki artxibotik ateratakoa da. Bere izeba ageri da erretratuan, Maria Unamunzaga, Altzolako bainuetxean lan egiten zuen sasoiari. Garai hartan oso garrantzitsua izan zen Altzolako bainuetxea, eta argazkian ikusten den bezala, jende askok egiten zuen lan bertan. Erretratuan ageri direnak bainuetzeko neskameak dira gehienak, baina badaude arduradunak, mailetak zaintzen zituztenak eta baita langileren baten senideak ere. Hain zuzen ere, argazkian ageri den umea Javier Bernedo da. Bere aitak han lan egiten zuen. Bera da gaur egun bizi den bakarra. Argazkian azaltzen diren guztien izenak ezin izan ditugu lortu, baina jarraian dituzue erretratuko hainbat protagonisten izenak: **Zutik, goian:** Ezezaguna, Antonio Landa, Mari Tere Usabiaga, Maria (mendaroarra), ezezaguna, ezezaguna. **Bigarren ilaran:** Maria Endeiza, ezezaguna eta Pako Egaña. **Hirugarren ilaran:** Ezezaguna, ezezaguna, Florentina Zubiaurre, Bittori Lariz, Carmen Endeiza, Josefa (eibartarra), Mari Tere Landa, ezezaguna, Antonia Mendikute, Maria Garate, Justa Garitazelaia, Marcelina Artetxe. **Laugarren ilaran:** Higinio Bernedo, Mari Cruz (zumaiarra), ezezaguna, Dolores Aizpiri, Gloria Iriondo, Maria Unamunzaga, ezezaguna, Javier Bernedo (umea) eta Martin Bernedo. **Lurrean eserita:** Ezezaguna, ezezaguna.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



BARREN



I. URTEURRENA

Jose Urrutia Etxabe

"Martinaundi"

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 86 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, maiatzaren 16an, 11:30ean,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Valentin Peñalba Castaños

2021eko maiatzaren 7an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




III. URTEURRENA

Agustin Makazaga Martija

"Ziolar"

2018ko maiatzaren 16an hil zen, 88 urte zituela.

Betirako izango zaitugu gogoan.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Arg.: Nagore Legarreta

Audience-en kantua 'Mendaroko biolin-joleari'

Disko bikoitza iragarri du Audience talde bizkaitarrak ekainerako: *Tolesdurak*. Ia hogei urteko ibilbidea du boskote honek eta bederatzigarren diskoa dute hau. Andoaingo Garate estudioan grabatu dute, Bidehuts zigiluak argitaratuko du eta dagoeneko aurkeztu dute diskoko aurrerapen kantua, *Mauka* [Badok.info atarian dago entzungai]. *Tolesdurak* diskoa hamasei kantuk osatuko dute, tartean bi interludiok, eta hamasei kantu horietako bat Joseba Olazabal mendaroarrak hasitako borrokari eskainitakoa da. Olazabalek denbora darama A8 autobidean zarataren kontrako panelak jar ditzatela eskatzen, trafiko burrunba jasangaitza zaielako inguru horretan bizi direnetako askori. Eza-guna egin da Olazabal bera, bai eta haren borroka ere. Azpilgoetan, bera bizi den pare horretan, hainbat panel ditu jarrita autobide-tik ikusteko moduan eta egunero egoten da bera ere autobidearen alde batean ez bada bestean, biolina jotzen. Haren borrokari eskainitako kantuari *Mendaro Fiddler* izena eman diote (Mendaroko biolin-jolea) Audience taldekoek eta bideklipa ere grabatu dute Mendaron bertan [aurki dute aurkeztekoa bideklipa]. Lan horien inguruan gehiago jakiteko Audience taldeko Ager Isunzarengana jo dugu. Gitarra elektriko eta biolina jotzen ditu Isunzak, eta koruak ere egiten ditu. Berak sortu du *Mendaro Fiddler* abestiko letra ere.

"Autopista bazterrean ikusia geneukan biolina jotzen, baina ondoren, gure lagun batzuek, Berde Produktzioak-ekoek, haren inguruan egindako dokumentala ikusi genuen eta han jakin genuen protestaren motiboa zein zen", azaldu du Isunzak. Gustatu zitzaizen zergatia eta erabaki zuten kantu bat eskaintzea Olazabalen borrokari euren lan berrian. "Erakargarria egiten zitzaidan ikustea nola bil dezakeen pertsona batek indarra erraldoi baten

kontra egiteko. EHUko irakasle kaleratuen urteetako borrokarekin konparatzen nuen nik. [Autonomiaren alde, irakaslego propioa. *Despidorik ez!* goiburuko pankartaren atzean urteak egin zituzten EHUk kaleratutako irakasleek eta memoria kolektiboan gelditu da irudi hori], zehaztu du. Olazabalekin harremanetan jartzeko bidea hasi zuten orduan, eta bien lagun batek egin zizkien zubi lanak. Ezagutu zutenean erabaki zuten Joseba Olazabalen borrokari diskoan zentralitatea ematea. "Jakin nahi genuen nola hartuko zuen kantu batean agertzea. Errespetu handienarekin sortu dugu guk abestia eta hori argi utzi nahi genion, ez zezan intru-



Arg.: Nagore Legarreta

sismotzat hartu, ez zezan inork ulertu Josebaren kausarekin bestelako etekin bat bilatzen genuenik. Eta ezagutu genuen Joseba eta laguntasun bat sortu zen gure artean". Hain egin zitzaizen "hurbilekoa", erabaki zutela bideklipa ere grabatzea eta diskoaren kontrazalera eramatea gaia. Mendaroko Gararock jaialdian txoznatzat erabiltzen duten karabana on-

doan atera dute kontrazaleko argazkia, baina Josebarekin berekin ere egin dituzte beste zenbait, Mendaron. Kantu bera ingelesez sortu du Ager Isunzak eta damu halako bat baduela aitortu du diskoko kantu gehienak euskaraz direlako eta justu hau ingelesez delako, baina hain hurbileko gai batekin ez dela ausartu nabarmendu du.

Kantu berriak aurkezteko lehen bi kontzertuen datak eta lekuak jakinarazi ditu Audiencek: ekainaren 19an, Andoaianen joko dute, eta astebete geroago, ekainaren 26an, Gernika-Lumon. Mendarora etortzeko aukeraz galdetuta, honela erantzun du: "Gu gutura joango ginatete. Baditugu lagun musikariak eta beharbada zuzenean haiekin harremanetan jartzea izango da dena".

► IBON SERRANO

MARRAZKILARIA

Umetatik izan du gustuko Ibon Serranok (Eibar, 1970) marraztea, baina urteetan utzita izan du zaletasun hori. 2017an heldu zion berriz ere marrazketari, eta denetik marrazten badu ere, Urban Sketching egitea asko gustatzen zaio, hau da, unean unekoa marraztea, begien aurrean ikusten duena. Maiatzaren 20an horri buruzko ikastaroa emango du Udal Liburutegian. Interesatuak liburutegian bertan eman dezakete izena.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Zer da Urban Sketching?

Orain dela hamabi bat urte sortu zen mugimendu bat da; 2007 inguruan. Kallean marraztea da azken batean, aurrean ikusten duzuna marraztea. Gabriel Campanario eta Enrico Casarosa zaletuak izan dira AEBetan garatutako mugimendu honen sustatzaile nagusiak, baina egia da kalean betidanik marraztu izan dela. Mugimendu hau modan jarri da, batez ere, Internet bidezko sare sozialen indartzeari esker. Marrazkiak konpartitzea mugimendu honetan nahiko funtsezkoa da. Ni ez naiz oso sare sozial zalea, baina zenbait eta noizbait partekatzen ditut. Dekalogo bat ere badaukate mugimendu honen jarraitzaileek.

◆ Zer dio?

Ondorengoa: 1. Tokian marrazten dugu, barnean edo kanpoan, ikusten duguna zuzenean islatuz. 2. Marrazkiek inguruko istorioa kontatzen dute, bizi garen eta bidaiatzen dugun tokietakoa. 3. Marraztean toki eta une jakin bat islatzen dugu. 4. Ikusten ditugun eszenekiko leialak gara. 5. Estilo ezberdinak onartzen ditugu. 6. Edozein tresna edo euskarri erabiltzen dugu. 7. Elkarri laguntzen diogu. 8. Taldean marrazten dugu. 9. Marrazkiak sarean partekatzen ditugu. 10. Mundua marrazki-marrazki ikusten dugu." Nik mugimendu hau distantziatik jarraitzen dut, baina munduan zehar indar handia hartzen ari da. Sketch Crawl izeneko beste aldagai bat ere badago: urteko sasoi bakoitzeko egun jakin batean jende multzo bat biltzen da leku inguru zehatz batean marrazteko. Euskal Herrian ere badugu oso talde aktibo bat. Sketch



“Gustatuko litzaidake ikastarora etortzen direnek marrazteari zaletasuna hartzea”

hitzak zirriborro esan nahi du, beraz, mugimendu hauen oinarria zirriborroak edo marrazki edo margolan azkarrak egitea dela esan daiteke, ingurune urbano edo natural batean batik bat, baina baita ere barrukaldeetan. Azken batean, norberaren begiradarekin aurrean dugun errealitatea islatzea izango litzateke helburua. Momentua, egoera eta lekua era arin eta azkar batean atzitzean oinarritzen da; argazki bat eskuez ateratzea bezalakoa da, baina niretzat beste xarma berezi bat dauka, bai prozesuak,

bai eta betirako oroigarri bezala gera daitekeen emaitzak.

◆ Zuk nola ikasi duzu marrazten?

Ni afizionatua naiz, *débutant* bat. Umetan gustatzen zitzaidan marraztea, baina ez nuen gehiegi landu, eta urteetan lagata izan dut. Lagun artean marrazkitxo eta txantxetarako karikatura batzuk-eta egiten nituen tarteka, baina gutxi marrazten nuen. 2017an-edo heldu nion marrazketari. Ziurrenik, adinari lotutako ezinegon batek eraginda, espresio artistikoarekin zerikusia zeukan zaletasun berri bat behar nuela pentsatu nuen. Honela, txikitako afizioa berreskuratu eta marrazteari ekin nion berriro. Koadroak, marrazkiak, akuarelak... denetik egiten hasi nintzen. Marrazkia eta pintura oso modu zabalean ulertzen dut nik. Asko gustatzen zait marraztea, bete egiten nau bai marrazte ekintzak bai emaitzak (...nahiz eta ez beti). Eskola batzuk hartu izan ditut, eta tarteka joaten naiz orain ere zenbait *masterclass* eta lehiaketetara, baina gehienbat autodidakta izan naiz. Egur arte eskolan ere aritzen naiz, eta Aitor Etxeberria Mendaroko margolari eta eskulturgile bikainak asko lagundu dit. Artista handia da Aitor eta eskerrak eman nahi nizkioke erakusten didan guztiagatik.

◆ Ikusten duzuna momentuan marrazten duzu?

Nahi baina gutxiago, baina nahiko maiz, batik bat oporretan eta bidaietan. Urban Sketchingaren dekalogoia ezin izaten dut beti garbiegi jarraitu eta era librean interpretatzen dut; horregatik, denboraz apur bat larri nagorenean, argazkiak ateratzen ditut, gero marrazkia etxean amaitzeko. Tranpa txiki hori ere niretzat balekoa da. Dena den, politena unean-unean marraztea da, baliabide gutxirekin, tamainaz edozein motxilatxotan sartzen den materialarekin. Koadernoak eta arkatza normalean beti eramaten ditut nirekin, eta momentu hilak ditudanean jarleku batean eseri eta marraztu egiten dut.

◆ Zein teknika erabiltzen duzu marrazteko?

Denetik, baina normalean, Sketchingerrako, lehenik arkatzez egiten dut zirriborro bizkor bat block txiki batean, eta gero errotulagailuz fintzen dut eta kolorea ematen diot akuarelekin. Azkenik, batzuetan, lerrotxo bat idazten dut sinatu aurretik *souvenir*-aren testuingurua hobeto oroitzeko. Baina kontuan izan ia edozerrekin marraztu daitekeela, ia edozein euskarritan. Adibidez BIC boligrafoak ere tresna onak dira marrazteko.

◆ Zer irakatsiko duzu maiatzaren 20ko ikastaroan?

Lehenik Gotzon Garate Udal Liburutegikoei eskerrak eman nahi nizkieke eskaintza polit eta berri honengatik. Ikastaroaren edukiei dago-

kionez, ni ere ikasketa ibilbide bat egiten ari naiz, beraz, ondo etorri zaizkidan marrazteko oinarri-oinarritzkoak diren hainbat aholku edo teknika irakatsiko ditut. Hiru ordu eta erdiko ikastaroa izango da, eta arratsalde batean emango dut. Asmoa da ordu erdiko azalpen txiki bat ematea, eta gero, kanpora, plaza txiki ingurura, irtetea taldean bakoitzak bere irudia marraztera. Marrazteko gida txiki bat ere emango dut, irudi polit eta koloretsu bat lortzeko hainbat trikimailu erakusteko. Marrazkiak behin bukatutik, berriro elkartuko gara liburutegian, nahi duenak liburutegiko sare sozialetan partekatuzko emaitza. Lanerako materiala hobe da norberak ekartzea. Egokiena: A5 tamaina inguruko block txiki bat, arkatza, errotulagailua eta akuarelatxo batzuk ekartzea, pintzeltxo batekin eta ur apur bat eramateko ontzi txiki batekin. Akuarelez lan egiteko komeni da blockeko papera ohikoa baino apur bat sendotoxagoa izatea. Tinta txinatarra ere ekarri daiteke (akuarelaz eta boligrafoaz konbinatzeko komeni da urari erresistentzia izatea). Garrantzitsua da gainean erraz eramatekoa izatea dena. Dena den, lasai, norbaitek materialik ekarriko ez balu, edonork utziko genizkioke-eta orri solteak eta boligrafo bat sikieran (txuri-

“Jardunaldi hau lagungarri izan daiteke geure buruei jartzen dizkiegun mugak gainditzeko”



“Edozein adin izan daiteke ona marrazten ikasteko; inoiz ez da berandu”

beltzak ere bere xarma berezia du). Nire nahia da ikastarora etorzen direnek marrazteari beldurra galtzea. Marraztea gozatzea da, eta edonor animatuko nuke ikastarora. Ez da beharrezkoa marrazten jakitea ikastaro honetan parte hartzeko. Hasiera batean helduei zuzendutako ikastaroa antolatu dugu, baina gaztetxoak ere ongietorriak izango dira. Zirriborro bat egin eta gero kolore apur bat emanda, gauza oso politak lortu daitezke. Marrazki guztiak dira politak maitasun apur batez eginak badira.

♦ ‘Artea inperfekzio perfektua da’. Zer diozu?

Bai, hala da. Sentsazio edo *feeling* bat transmititu, atmosfera bat iradoki, errealitatea interpretatu, istorio bat kontatu... hainbat gauza izan daiteke artea, betiere ikuslearengan sentimendu edo inpresio berezi bat sorrarazten badu. Eta inperfekzioak askotan perfekzioak dira, ezinezkoa delako errealitatea den bezala erakustea, artistak bere giza ukitua eta nortasun berezia islatzen duelako. Inperfekzio azalekoagoei dagokionez, berriz, adibidez akuarelekin irteten diren orbain edo mantxak, oso politak geratzen dira askotan. *Zorioneko akatsa* esaten zaio pinturan, eta akatsetatik gauza oso interesgarriak irteten eta ikasten dira askotan. Ni ere ez pentsa txukunegia naizenik margotzen. Bestalde, Urban Sketchingean azkar eta seguru marraztu beharra dago, beraz ez zaie garrantzi larregi eman behar ustezko okerrei.

♦ Zer ematen dizu zuri marrazteak?

Azken urteko egoera triste eta distopiko honetan, guzti horretatik tarteka apur bat aldentzeko eta beste zeozertan kontzentratzeko aukera ematen dit marrazteak. Ez nuke esango erlaxatzen laguntzen didanik, nik erlaxazioa beste modu batera ulertzen dudalako, baina burua horretan eta ez beste ezertan zentratzeko aukera ematen dit marrazteak; “orain eta hemen” egoten naiz. Ez dut egunero marrazten, ez dut lortzen astirik; afizio larregi eta denetan erdipurdi! (Kar-kar). Egokiena litzateke egunero ordu erdi bat gutxienez eskaintzea marrazteari, baina nik ez dut lortzen. As-tean pare bat ordu ateratzen saiatzen naiz marrazteko eta margotzeko. Iaz, konfinatuta egon ginenean, denbora gehiago izan nuen eta orduan egin nituen marrazki pila bat. Marrazteak pausatzeko aukera ematen dit eta baliozkotzat daukadan zerbait egiteko aukera ematen dit, gauza xumea izanda ere.

♦ Animatu jendea zure ikastarora joateko.

Esango nuke jardunaldi hau lagungarri izan daitekeela geure buruari jartzen dizkiogun mugak gainditzen hasteko. Autoinposatutako muga asko ditugu, eta muga horiek askotan gainditu egin daitezke. Edozein gara marrazteko gai, eta nik hori transmititu nahi nuke. Gozatzeko modu bat da, eta zaletasun oso polita. Ikasketa prozesu bat da, eta marraztu ahala asko hobetzen da. Hobekuntza horiek ikustea norberaren autoestimurako ere positiboa izaten da. Nire ustez, inoiz baino



gehiago, horrelako zaletasunak errekupearatu behar ditugu, are gehiago berehalakotasun, dispertsio, stress eta hiperteknologizatutako gizarte kontsumista honetan. Ikastaro hau aukera ona da eskulanean oinarrituriko afizio mota hauetan barneratzeko, eta lehen esan bezala, “orain eta hemen” horretaz kontzientziatuz izateko. Gainera, edozein adin izan daiteke ona marrazten ikasteko, inoiz ez da berandu. Gustatuko litzaidake norbait nire ikastarorik irtetea zaletasun berri batekin.

ETORKIZUNERANTZ
HEZKUNTZA ERALDATZEN

HH 0-leko matrikulazio aldia irekita dago

Ikastola ezagutzeko bisita pertsonalizatuak egingo dira, deitu honako telefonora hitzordua hartzeko: 943 744 441

elgoibar Ikastola



www.elgoibarikastola.eus

Ordutegi zabala / Jai-zubietan eta oporretan irekita



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

- ★ Kotoizko izara organikoak
- ★ Ehun iraunkorrak
- ★ Kotoi organikoa, leuna, naturala, transpiragarria eta hipoalergenikoa

GOTS ziurtagiriarekin

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Jon Aranoa
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astehenerdik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Itaipindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

BASIC EGUZKI KIT-A

2 Paneleko KIT-A
Kontsumoa: 1Kw
Erabilera: argiztapena,
mugikor karga eta telebista.



995 €
895 €



TECASOL
Técnicas del Agua y del Sol, S.L.

ETOR ZAITEZ GURE EGUZKI KIT
ESKAINTZA EZAGUTZERA!

Zerbitzuak

Salmenta
Instalakuntza
Konponketa eta mantenua
Aholkularitza eta dirulaguntzen kudeaketa

CARAVANING KIT-A

Panel Malgudun KIT-A
Potentzia: 100Kw
Erabilera: argiztapena,
mugikor karga eta telebista.



368 €
330 €



San Ignazio kalea 3 behea, 20870 ELGOIBAR - 610 389 558 - tecasol@tecasol.net



▶ **ANDONI
MUTILOA**
ANTZETZLEA

“Oso kamikazea izan naiz proiektu honekin, eta amets bat gauzatu dut”

‘Esnatu naiz’ kabareta taularatuko du bihar Andoni Mutiloak (Hernani, 1976) Kultur Etxeko sotoan. Nortasuna, generoa eta sexu-joera ezberdinak lantzen dituen obra da, eta ikuskizun honen bitartez, LGBTI+ kolektiboko pertsonak oraindik ere Euskal Herrian normaltasun osoz bizitzeko dituzten arazoei buruzko gogoeta sustatu nahi du. Mutiloa kazetaria da, baina betidanik gustatu izan zaio antzerkia. Berak idatzi du obra eta berak eman dio bizia protagonistari. Elur da protagonista, jatorri euskalduna duen baina Londresen bizi den trans artista bat. Kabaret honetan artistaren atzean ezkututzen den pertsona ere ezagutuko dugu: Pello. Euskalduna da, baserritarra, eta hamar urte atzerago Euskal Herriatik alde egitea erabaki zuen, bertan ezinezkoa zitzaielako bere nortasunarekin bat eginda lasai bizitzea. 19:00etan hasiko da emanaldia. Pandemiagatik, edukiera mugatua egongo da, eta horregatik izena eman behar da: <https://labur.eus/esnatunaiz> helbidean.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola bururatu zitzaizun ‘Esnatu naiz’ kabareta sortzea?

Lehendabiziko ideia 2017ko udazkenean izan nuen. Kazetari izan naiz 20 urtez, eta une hartan eszedentzia hartuta nengoen. Urtebeterako eszedentzia hartu nuen, atsedean hartzeko asmoarekin, eta ez nekien oso ondo zer egingo nuen, baina zerbait sortu nahi nuen. Eta halako batean etorri zitzaidan ideia: Beyonce izan nahi duen baserritarra. Hori izan zen guzti honen abiapuntua. Bost bat hilabete edo pasatu ziren obra idazten hasi nintzenerako, eta denbora horretan ideia hori forma hartzen joan zen.

◆ Elur eta Pello dira protagonistak. Bi nortasun, pertsona beraren barnean.

Bai, hala da. Kabaretaren hasieran Londresen gaude,

The Pink Flamingo izeneko klubean. Elur klub horretako artistetako bat da. Trans kolektiboko kidea da, eta bere ikuskizuna dauka klubean. Londresko mugimendu alternatibo horren barruan, jende asko hurbiltzen da gauero bere emanaldira, baina haietako batean zerbait gertatuko zaio. Emanaldia hasiko du, baina ezingo du jarraitu. Une horretan hasiko da Elur bere istorioa kontatzen, eta orduan ezagutuko dugu Elurren atzean dagoen beste pertsona zein den. Pello da, euskalduna, baserritarra, Gipuzkoako herri txiki batean hazitakoa. Hamar urte lehenago konturatu zen bere nortasuna eta bizimodua ez zetozeela bat, eta ezin zuela bere nortasuna garatu bizi zen ingurune hartan, eta ondorioz, alde egin zuen Euskal Herriatik.

◆ **Esan dezakegu, beraz, Pello esnatu egin zela?**

Bai, horixe da. *Esnatu* naiz Pelloren esnatzea da. Berea ez den bizimodua bizitzen ari zen eta bizitza berrirako esnatze horren urratsak kontatuko ditugu obra honetan. Pelloren garapena ikusiko dugu, Elur izatera iristen den arte.

◆ **Fikziozko obra idatzi duzu, baina izan zitekeen benetakoa, ezta?**

Bai, jakina. Fikzioa da, baina nire izaerarekin bat egiten dute bi nortasun horiek, eta azken batean, obra hau sortu badut izan da jende askori gertatu zaiolako hau bizitzan zehar. Gure obra Euskal Herrian kokatuta dago, baina hau ez da hemengo fenomeno bakarrik, mundu guztian gertatu izan dira horrelakoak, fenomeno unibertuala da. Genero eta identitate kontuez ari gara gu, baina ihes egiteko erabakia beste arrazoi askok ere baldintzatu izan dute jendearengan. Egoera horren kritika egin nahi dugu, eta jendeari hausnarketarako gaia ere eman nahi diogu.

◆ **Zerbait sortu nahi zenuela esan duzu. Sormenerako gaitasuna proban jarri nahi al zenuen?**

Bai, sormenarekin zorra neukan, eta zentzu horretan, nire buruari ere zor nion zerbait sortzea. Ordura arte sormenak izan zuen lekua nire lanean, baina lanetik kanpora ez nintzen jartzen sortzera. Ideiak banituen, baina ez nituen gauzatzen. Eta kasu honetan ere kostatu zitzaidan, eta idazten hasi ondoren ere, utzita izan nuen. Zerbait sortzeko jarraikortasuna eta diziplina handia behar dira, eta pozik nago lortu nuelako diziplinatua izatea. Obrako protagonistak bi aurpegi ditu, bi nortasun, eta biek dute nirekin zerikusia, eta horregatik, idazketa prozesua oso ederra izan zen.

◆ **Hasieratik izan al zenuen garbi kabareta izango zela?**

Hasiera batean antzerki gidoi baten itxura zuen istorioak, baina idazten joan nintzen heinean konturatu nintzen musika eta dantza leku handia hartzen ari zirela. Nire buruan irudikatzen nituen hainbat eszena, eta beti irteten ziren musika edo dantza, bi alor horiek nik neuk ere oso gustuko ditudalako. Gidoiari forma ematen hasi nintzenean konturatu nintzen istorio honi zegokiona kabareta zela. Garapen moduko bat izan zen: hasieran antzerkia zirudien, gero musikala, eta azkenean, kabareta izaten amaitu zuen.

◆ **Obraren sortzailea izateaz gain, protagonistaren azalean sartu zara. Argi zenukan zu izango zinela aktorea?**

Nire buruan bazebilen ideia hori, baina ez neukan gutziz erabakita, eta une hartan niretzat garrantzitsuena obra idazten amaitzea zen. 2019ko urtarrilaren 1ean amaitu nuen lehenengo bertsioa idazten, eta ideia horrek gero eta indar handiagoa hartu zuen. Idazten bukatu ahala, argi ikusi nuen, idazteaz gain, obra hori taularatu nahi nuela eta nik izan nahi nuela protagonista.

◆ **Aurrez antzerkian ibilia zinen ala hau izan da zure aurreneko aldia?**

Afizionatu moduan zerbait ibilia nintzen, baina oso gutxi. Ume-

tatik izan dut gustuko antzerkia, baina antzerkigintzarekin oso harreman intermitentea izan dut nire bizitzan. 12 urterekin egin nuen lehenengo antzerki ikastaroa, baina gero utzi egin nuen, eta denborarekin itzuli nintzen berriro. Horrelakoxea izan da nire harremana antzerkiarekin. Dantzak pisu handiagoa izan du nire bizitzan. 10 urterekin hasi nintzen eta beti egin izan dut dantza. Euskal dantzan hasi nintzen, txapelketetan ere ibili nintzen eta Donostiako dantza taldean ere aritu nintzen urte askoan. Azken urteetan dantza garaikidea eta *contact* inprobisazioa egin izan ditut. Dantza ezinbestekoa da nire bizitzan. Dantza emanaldiak egin izan ditut, eta alde horretatik taula gainean aritzea ez da berria izan niretzat. Nire lanbideetatik ere, jendaurrean aurkezpenak egin izan ditut, eta horrek ere ez zidan aparteko beldurrik sortzen. Oso kamikazea izan naiz proiektu honekin eta amets bat gauzatu dut. Esan behar dut laguntza handia izan dudala. Erabaki nuen obrarekin aurrera egitea Zestoako antzerki eskolan nenbilen, eta Amancay Gaztañaga zen nire irakaslea. Lotsa ere eman zidan hasieran nire asmoen berri emateak eta laguntza eskatzeak, baina berehala esan zidan baietz, lagunduko zidala. Nik izugarri

miresten dut Amancay, sortzaile izugarria da, eta antzerkiarekiko duen begirada oso interesgarria da. Berak lagundu zidan obrari forma ematen, eta ezinbestekoa izan da haren laguntza guzti honetan. Babesa eta konfidantza handia eman dizkit. Antzerki txiki eta ertainentzako Poltsiko antzerki emanaldira aurkeztu genuen obra, eta beste batzuekin batera gure lana ere hautatu zuten.

Horri esker lortu nuen gauzatu ahal izateko dirua.

◆ **Nolako harrera izan du obrak?**

Oso pozik gaude. Iritsi zen estreinaldia, obraren erditzea, eta Poltsiko antzerki jaialdiari esker, lau emanaldi programatu genituen. Gero pandemia iritsi zen eta dena eten zen, baina lau emanaldi horien ostean argi ikusi nuen emanaldi gehiago egingo nituela. Jendearen harrera sekulakoa izan zen, eta ni neu ere oso gustura sentitu nintzen. Gainera, asko sinisten dut ikuskizun honekin zabaldu nahi dugun mezuan, eta hori zabaltzeko beharra sentitu nuen. Obra sinplea da, baina mezu garrantzitsua dauka atzean. Kabaret formatua gainera, ikuslearentzat erraza da, atsegina. Musika dauka, dantza, drama ere bai... oso konpletua da. Modu erraz bat da guk zabaldu nahi dugun mezu horrekin bat egiten ez duen jendeak gutxienez gogoeta egin dezan. LGBTBI+ kolektiboko kideek gaur egun oraindik Euskal Herrian lasaitasun osoz bizitzeko dituzten arazoei buruzko gogoeta sustatu nahi dugu. Jende askok ez ditu transak ezagutzen edo ez daukate identitate eta sexu joera desberdinetan interesik, eta nik uste dut obra honekin iritsi gaitetzkeela jende horrengana ere. Emanaldi asko emateko aukera izan dugu, eta aurrerantzean ere jarraituko dugu. 30 emanaldi baino gehiago eman ditugu eta oso eskertuta nago. Oso pozik ari naiz zeregin berri honetan. Neu arduratzen ari naiz guztiaz eta lan handia da, baina gauza pila bat ari naiz ikasten.

“Asko sinisten dut obra honekin zabaldu nahi dugun mezuan”

Bilddur edarra, obispuak abadiari!: Gehiago agintzen duenak gutxiago agintzen duenari beldurrik ez diola adierazteko, ironikoki. — *Berandu najabik, eta oiñ ere andriak errieta edarra preparauko jak!* — *Bai, zera! Bildur edarra obispuak abadiari!*

Eneko Etxanizek irabazi du Elgoibarko Auresku Txapelketa, bere mailan



Euskal Herriko hainbat herritatik etorritako dantzari gazteak lehiatu ziren asteburuan Elgoibarren XX. Auresku Txapelketan. 7 eta 15 urte bitarteko 41 dantzari izan ziren guztira, eta tartean, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako hamar ordezkari ere aritu ziren dantzan. Lezo, Andoain, Pasai Donibane, Lizartza, Zizurkil, Legazpi, Lasarte, Ataun, Amasa-Villabona, Anoeta, Mendara eta Elgoibarko dantzariak aritu ziren lehian. Zapatuan egokitu zitzairen dantza egitea Unax Ansola, Duna Santos, Maialen Pizarro, Uxue Cabrera, Elaia Etxaniz eta Amaia Mendiari, eta domekan, Nerea Galindo, Malen Galarraga, Jon Etxeberria eta Eneko Etxanizi. Eskolako arduradunek jakinarazi dute oso txukun aritu zirela guztiak, baina txapelketa herrian jokatu, beste batzuetan baino urduriago ere dantzatu zutela batzuk. Unax Ansolarentzat estreinako aldia izan zen, eta bigarren egin zuen. Domekan, Eneko Etxaniz elgoibartarrak jantzi zuen txapela eta Jon Etxeberriak laugarren egin zuen. Hurrengo kanporaketa lezon jokatu dute, maiatzaren 29an, eta bertan izango dira Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako ondorengo ordezkariak: Jon Etxeberria, Maialen Pizarro, Uxue Cabrera, Amaia Mendia eta Unax Ansola.

Debabarreneko txokoak partekatze argazki lehiaketa Instagramen

Eskualdeko txokorik ederrenak aurkitzeko kanpaina jarri du martxan Debege-sako Turismo Sailak, eta horren barruan argazki lehiaketa antolatu dute Instagram sare sozialean. Ekimenean parte hartu nahi dutenek Instagramen argitalpen bat (feed normalean; ez Instagram Story, TV edo Reels) egin beharko dute Debabarreneko txokorik kuttunenaren argazki batekin. #Debabarrena traola erabili behar dute, @debabarrenatur kontua jarraitu eta aipatu, eta kokapena jarri, edo behintzat kokapena azaldu behar dute argitalpenaren testuan. Nahi beste argitalpen egin daitezke. Parte hartzen duten lagunen artean Debabarreneko produktuekin osatutako bi sorta zozkatuko dituzte maiatzaren 31n. Zozketan parte hartzeko epea maiatzaren 8tik 30era izango da, bi datak barne. Informazio osoagoa: debabarrenaturismo.com webgunean.

Umeentzako kontzertua, maiatzaren 21ean, Idotorben

Atxutxiamaiak, Udal Ludotekak eta Musika Eskolak antolatuta, umeentzako kontzertua izango da maiatzaren 21ean, Idotorbeko frontoian. Musika Eskolako musikariek eskainiko dute kontzertua, eta umeek aukera izango dute baita ere musika instrumentuak sortzeko. 17:30ean hasiko da ekitaldia. Ez da izenik eman behar. Antolatzaileek jakinarazi dute eguraldi txarra egingo balu, bertan behera geratuko dela saioa. Udalak lagunduta antolatu dute ekitaldi hau.

Aitana Lukeren kartelak iragarriko du Ludotekako XI. Aste Nagusia

25 lan jaso ditu Udaleko Gazteria Sailak, eta Aitana Luke Garciak aurkeztutako lanak irabazi du Elgoibarko Ludotekako XI. Aste Nagusia iragartzeko antolatutako kartel lehiaketa. Herri Eskolako LH5eko ikaslea da, eta 100 euroko bonua irabazi du Pitxintxu dendan gastatzeko. Maiatzaren 17tik 21era ospatuko da Aste Nagusia:

- Maiatzak 17, 16:30ean, Zirku tailerra.
- Maiatzak 18, 17:00etan, Top Txef lehiaketa.
- Maiatzak 19, 17:00etan, *Hankaz gora!* ikuskizuna.
- Maiatzak 20, 16:30ean, Zirku tailerra.
- Maiatzak 21, 17:30ean, haurrentzako kontzertua.



Bi goleko aldeari buelta eman beharko dio Haundik bihar Hernanin, final laurdenetako itzulerako partidari

Haundik eta Hernanin final-laurdenetako kanporaketako joanekoa jokatu zuten aurreko zapatuan Mintxetan, eta 0-2 irabazi zuten hernaniarrek. Hala, ezinezkoaren bila joan beharko dute elgoibartarrek Hernanira. Lortu duten abantailaz gainera, igoera lortzeko hautagai nagusietako bat baita Hernanin denboraldi hasieratik. Bero itogarria izan zen zapatuko partidako protagonista nagusia. Termometroak 30 gradu markatzen zituela hasi zuten Haundik eta Hernanin hirugarren mailara igotzeko bidea. Beroa zela-eta, zati bakoitzean atsedendaldi bat hartzeko aukera eduki zuten arren, -araudiak horretarako aukera ematen duelako-, jokalariek igarri zuten be-roaren eragina. Arbitroak sarritan gelditu behar izan zuen jokoa hainbat jokalarik gihar bikiak karga-karga zituztelako, eta erdi zorabiatuta ere laga behar izan zuen jokalarik batek berdegunea. Lehen zatian Hernanin eduki zuten baloiaren jabetza eta laupabost aukera argi sortu zituzten bisitariak, eta bakarra etxeko taldeak. Bigarren zatian hasieran markagailuan aurretzeko bi aukera argi izan zituen Haundik, elkarren jarraian. Hortik aurrera partidaren kontrola berreskuratu zuen Hernanin. 68. minutuan etorri zen bisitarien lehen gola. Hernanin aurretikari Manex Iradik sartu zuen, erdiraketa bat area barruan errematatuta. Golpe handia izan zen Pablo Turrillasen mutilentzat, eta hurrengo minutuetan gertuago zirudien Hernaninren golak Haundinren berdinketak baino. Talde sendoa eta esperientziaduna dela erakutsi zuen Hernanin Mintxetan, eta abantailari



eustiaz gainera erasoan jarraitu zuten. Azken hamar minutuetan bi gol aukera argi eduki zituzten, baina Haundiko atezainak eta defentsak eragotzi zituzten golak. Aldiz, 90 minutuan ezin izan zuten Olivenza jokalariek kórner baten ostean area txikitik egin zuten errematea gelditu, eta bigarren gola sartu zuten bisitariak. Mailaz igotzeko kanporaketa bat %80an herriko jokalariz osatutako talde batekin jokatzeak aukera "oso pozgarria" dela nabarmendu du Turrillas entrenatzaileak. "Gazteenentzat Master bat izatea espero dut, eta taldekideez ikasi dutena aprobetxatzen jakitea". Buelako neurketa bihar, hilak 15, jokatuko dute Hernanin Zubipe futbol zelaian, 17:00etan.

Otarre Xake Klubeko atea zabalik, eguenero

Mendaroko Otarre Xake klubak Azpilgoetako Kultur Etxean duen lokaleko atea zabaltzen du ostegunero, 7 urtez gorako herritar guztientzat, 18:30etik 19:15era arteko tartean. "Argi laga nahi dugu ez direla xake eskolak izango, baina ordu tarte horretan klubeko arduradun bat izango da beti lokalean, gerturatzeko direnei xakearen inguruko oinarriko azalpenak emateko", azaldu dute. Lokaleko aforoa sei lagunekoa da pandemia egoeran, eta horregatik, eguraldiak (hotz-beroak) baimentzen duen guztietan, xake klubekoak Azpilgoetako elizpera irtengo dira, han 10-12 lagun batzeko aukera dutelako.



Kadeteen txirrindulari lasterketa jokatuko dute domekan Mendaron

Kadete mailako txirrindularientzako Mendaro Herria I. Sari Nagusia jokatuko dute maiatzaren 16an, domekan, Mendaron (16:15). Irteera eta helmuga Kurutz Gain industriagunean izango ditu Mendaroko Txirrindulari Elkarteak Mendaroko Udalen laguntzarekin antolatutako probak, baina bizi dugun egoera dela-eta, jende pilaketak sahiesteko irteera eta helmuga puntura ez gerturatzeko eskatu dute antolatzaileek. 59 kilometroko ibilbidean lehiatuko dira txirrindulariak.

LANA.....

Eskaerak

Umeak zaintzeko prest nago arratsaldetan eta asteburuetan.

☎ 688 883 624

Garbiketa lanak egiteko prest nago: etxeak, portalak, bulegoak...

☎ 612 202 116

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 643 440 462

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. Zainketa soziosanitariorako titulazioa daukat.

☎ 632 157 852

Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ordutegi malgua.

☎ 617 571 210

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua.

☎ 630 915 031

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Urte askotako esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko prest nago.

☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. Etxeko langile moduan ere lan egiteko prest.

☎ 643 584 198

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 602 407 338

Eskaintzak

Jangelarako zerbitzari euskalduna behar da Elgoibarko taberna batean.

☎ 943 741 230

BESTELAKOAK.....

Lur-zorua salgai Azkaraten. 20.000 metro koadro (Bi hektarea). Sarbide oso ona eta itxitura. Malda oso txikia du.

☎ 645 048 110

GARAJEAK.....

Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ 696 550 356 / 653 863 482

ETXEBIZITZA.....

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.


☎ 660 458 756

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p style="font-size: small;">Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Euzko Administrazioalderen Kontakidua</p>  <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: large;">ROSA Ma PINTADO</p> <p style="font-size: x-small;">Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: large;">660 969 679</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: large;">rosapf@telefonica.net</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: large;">Gure komunitatean estalkiaren zati bat erabiltzen du jakide batek. Konponketa batzuk egin behar ditugu eta jakin nahi nuke nork ordaindu behar dituen konponketa horiek.</p> <p>Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da erregistro-dokumentazioan erabilera pribatiboko elementu komunetan egin beharreko konponketei buruzko adierazpenik ezartzen den. Ezer aurreikusi ezean, jurisprudentziak adierazten du elementua mantentzea eta zaintzea erabilera esleituta duen jabeari dagokiola, eta egiturazko akatsengatik egin beharreko konponketak, berriz, komunitatearen kontura izango direla. Egoera horretan, komunitateak jabekidearen aurka egin dezake kalteak elementu komun erabilera desegokiaren ondorio badira. Hori kontuan hartuta, komunitatearen betebeharra da eraikinaren estalkia isolatzeko lanak egitea, estalkia erabilera pribatibokoa izan arren. Eta, ildo beretik, erabilera pribatiboko terraza-estalkiaren iragazgaiztearen egoera txarrak eragiten dituen iragazketak, komunitateak dagozkion konponketen erantzukizuna izango du.</p> <p>ONDORIOA: Erabilera pribatiboa duten terraza eta patioa konpontzeko gastuak jabe guztiek hartu behar dituzte beren gain, betiere eraikinaren egiturazko edo segurtasun-baldintzei eragiten badiete.</p>
 <p style="font-weight: bold; font-size: large;">AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</p> <p>San Bartolome, 2</p>	



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.es e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Nora**,
atzo 10 urte egin
zenituelako. Muxu
handi bat etxeko
guztien partez.
Maite zaitugu.
Zorionak, pottoko
zure zazpigarren
urtebetetzean! Zer
mutil handi, gure



Eneko! Pa erral-
doi bana etxeko
guztien partetik.




Zorionak, **Peru!**
7 urte bete dituzu
dagoeneko! Jar-
raitu horrela, mai-
tia, etxeko poza
zara-eta! Mila
patxo!



Zorionak, **Laia**,
astelehenean 5
urte egingo dituzu-
lako. Amama,
Sara eta tia Yolan-
daren partez.



Zorionak **Asier**,
astelehenean,
hilak 17, 4 urte
beteko dituzulako.
Muxu asko fami-
liakoen partez.



Zorionak! 58 urte bizipozari elkarrekin
eusten. Ez zarete makalak! Segi berdin
hurrengo urteetan eta gu prest egongo
gara Aittola Zaharrera joan eta ospa-
tzeko. Nahia, Elsa, Maite, Inaki eta
Imanol.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARKO eta **MENDAROKO**
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



EXPRESS ESKAINTZAK!

LG 49UN71 TELEBISTA



A T G F

429 €

● 4k. ● Smart tv. ● HDR 10.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

14 BARIKUA

19:00 Zine foruma: 'Carmen y Lola'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

15 ZAPATUA

11:00 Merkataritza eguna, Mendaron. Bigarren eskuko azoka, frontoian

19:00 Kabareta: 'Esnatu naiz'. Edukiera mugatua izango da, eta izena eman behar da esteka honetan: <https://labur.eus/esnatunaiz>

20 EGUENA

16:30 Urbat sketching marrazketa tailerra. Ibon Serranok emango du. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

21 BARIKUA

17:30 Haurrentzako kontzertua. Ludote-kak, Atxutxiamaikak eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta. Ido-torben.

17:30 Kontzertua: Eñaut Elorrieta. Herriko Antzokian.

20:00 Kontzertua: The renegados. Si-nuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Apirilean hildakoak

- **Alejandro Rey Tobajas.**
73 urte, apirilak 1
- **Jose Mir Agirre.**
72 urte, apirilak 3
- **Fermin Arrese Arizmendiarieta.**
91 urte, apirilak 8
- **Vicente Zubizarreta Goyogana.**
86 urte, apirilak 12
- **Luisa Soto Brocal.**
86 urte, apirilak 22
- **Jose Maria San Martin Odria.**
95 urte, apirilak 25
- **Alicia Marcos Zabala.**
95 urte, apirilak 27

Zinea (Herriko Antzokian)



'Una veterinaria en Borgoña'

14 barikua: 19:00
15 zapatua: 19:00
16 domeka: 19:00
17 astelehena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

14 BARIKUA	15 ZAPATUA	16 DOMEKA	17 ASTELEHENA	18 MARTITZENA	19 EGUAZTENA	20 EGUENA	21 BARIKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarburutze, 7 (Eibar)
943 201 912




Ana Mari San Martin Aranberri

2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.
Beti gure bihotzean.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 16an,
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Orain urte bete joan zinen
apal eta isilpean;
zurekiko dugun maitasuna
beti gure bihotzean.***

Etxekoak



IX. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

***Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza burruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
kuadrillako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan.***

2012ko maiatzaren 7an hil zen.

Kuadrillako lagunak



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

- Aroztegiak
- Erreformak

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
telefon@pagoagasa.com
ELGOIBAR



Pedro Muguruza Etorbidea, 1
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com




ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.A.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

- Igeltseritza
- Pintura

ELEKTRIZITATEA



Andres: 630 957 345
677 512 462
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea